

Numax hartara itzuliz Joaquim Jordàren hitzaldiaren laburpena **04/05/06 Arteleku**

Saioari hasiera emateko Carles Guerrak hitz batzuk esan zituen Joaquim Jordàri buruzko aztarnak eman nahian. *Salbuespen egoera proiektuko* koordinatzailearen iritziz, "Numax presenta" filmarekin proiektu zehatzak aztertzeke aukera zabaltzen da. Joaquim Jordàk 1979n egindako lan horrek praktika artistikoen eta lan jardueren arteko erlazioa erakusten du; hain zuzen ere Salbuespen Egoera proiektuaren ikerketa gai dena. Praktika artistikoek egiten duten irudikapen lana berriz hausnartzea, jarduera politikoei alderdi estetikoak emateko modua aztertzea proiektuaren interesgune nagusiak dira.



Ondoren Joaquim Jordàren txanda izan zen eta Toni Negrik hamabost egun lehenago Artelekun eskaini zuen hitzaldia aipatzen hasi zen. "Tonik mundua ulertzeko modu baten erretratu bikaina egin zuen, bere bizitzako esperientziarekin koherentzia handia eskaintzen zuen. Emandako hitzaldian aipatzen duen gaur egungo munduaren baitan 70ko hamarkadako beste mundu hura dago, bestelako mundu bat egin zitekeela zirudienekoa. Garai hartan, agian, *iraultza* hitzak ez zuen zentzurik, baina bai *subertsio iraunkorraren* kontzeptuak".

Joaquim Jordà Italian bizi izan zen 70ko hamarkadaren hasieran. Artean hasi gabe zegoen Italiako iparraldeko lantegitarren sakabanatze prozesua, baina Joaquim Jordàren iritziz antzeman zitekeen. Garai hartan lantegia hirietako eragilea zen. Bizimodua lantegiko ordutegiaren inguruan antolatzen zen. Joaquim Jordàk azaldu zuen hainbat arrazoirengatik joan zela Italiara, besteak beste, Espainian bizi zen egoerak higuin gaindiezina sortzen ziolako. "Denak frankismoaren sistema usteletik ihes egiten ahalegintzen ziren, baina inork ez zuen kemenik izan hura eraisteko", adierazi zuen. Esan zuenez, Italiako aldaketa prozesua Frantziako 68ko maiatzekoaren aldean oso bestelakoa izan zen, Joaquim Jordàrentzat Frantziakoa belaunaldi aldaketa bat besterik ez zen izan, iskanbilek eta matxinadek belaunaldi jauzi bat eragin zuten agintera iristeko prozesuan. "Agintea aitona-amonetatik bilobetara igaro zen, belaunaldi bat pasatu zuten agintera iristeko, baina besterik ez", azaldu zuen. Italian prozesua diferentea izan zen. Subertsioa, aginte mekanismoen aldaketa bi alor ezberdinetan sortu zen. Batetik, 68ko maiatzarekiko zorra nabarmena izan zen aldaketaren protagonistetako batzuk ikasle mugimenduak izan baitziren; bestetik, Italiako lantegi handitan nagusitzen ari zen subertsioa. Langileen eta ikasleen arteko bat egitea garrantzitsua izan zen gertatutako aldaketan. Hasieran ikusle hutsa izan zen prozesu hartan, baina gero konpromiso garbiagoa eskatu zioten. "Batuetan ez da nahikoa ikusle izatea, parte hartu behar da, nahiz eta ezer ez egin. Orduan, zalantza bat sortu zitzaidan: hemen egingo dut, edo Espainiara itzuliko naiz zer gertatu den ikustera? Eta itzultzea erabaki nuen", azaldu zuen Jordàk.

Joaquim Jordà Bartzelonara itzuli zen eta harremanetan jarri zen ezkutuko kazetaritza agentzia batekin, zeinak aldizkari bat argitaratzen baitzuen gainerako hedabideetan ematen ez ziren berriekin. Han lan egiten zuen erredaktoreetako batek garai hartako Bartzelonan ezker-muturrean jarduten ziren mugimenduen egoeraren mapa bat prestatu zion. Joaquim Jordàk behin betiko utzi zuen mugimendu komunista Italiara joan aurretik eta bere iritziekin hobeto zetozen mugimenduak aurkitu nahian COC-Círculos Obreros Comunistas- taldea ezagutu zuen, Euskadin NOC izeneko adar bat zuena. "Mugimendu horretatik aldentzea erabaki nuen momentuan Numaxeko historiaren berri izan nuen", azaldu zuen.

Numax 30eko hamarkadan sortu zen. Eratu zenean Numax lantegi eredugarria zen, produktu onak eta automatizazioaren bidez arrazionalizatutako produkzio sistemak zituen. Bartzelonan kate-lana ezarri zuen lehenetakoa izan zen. 70ko hamarkadan lantegiak sozietate mugatu izateari utzi zion eta banketxe baten eskuetara pasa zen eta hark ixtea erabaki zuen. "Numaxi bukaera ematea erabakitzen dute leihotik ihes eginez langileei dagozkien kalteordainak ordaindu beharrik ez izateko. Alde egin aurretik paretik kentzen dituzte antzinatasunagatik kanporatze garestiagoa izango luketen langileak eta horien ordez langile gazteak eta esperientziarik gabekoak hartzen dituzte, neskatxak batez ere", esan zuen Joaquim Jordàk. Numaxeko bi lantegitan 600 langile izatetik 250 izatera pasa ziren. Zuzendaritzaren asmoa garbia zen, greba eragin nahi zuen krisi espedientea ireki eta lantegiaren itxiera justifikatu ahal izateko. Prozesu horretan enpresak hutsegite bat egin zuen, Joaquim Jordàren ustez. Kaleratzea ahalik eta merkeena izatea lortzeko asmoz "jende garbia" kontratatu zuten eta, une jakin batean, 13 langile kanporatu zituztenean konturatu ziren esperientziarik gabeko neskatxak

ziruditenek erresistentzia apurtezina hasi zutela inolako kontrol politiko edo sindikalari erantzun gabe. "Ofizioko langile taldetxo bat zegoen, CNTko beteranoak, troskista talde txiki bat eta langileen gehiengoa inolako kidetzerik ez zuena zen edota Autonomia Obreran sartu berriak. Puntu horretan Negriarekin bat egiten dugu", adierazi zuen Joaquim Jordàk.



Neskatxa gazteek osatutako taldeak zuzenduta Numaxeko langileek hasi zuten greba gogor eta gozakaizaren ondoren, bigarren fasean enpresa hartzea erabaki zuten. Une horretan, Joaquim Jordàren hitzetan, "mundu berriak begiztatzen hasi ziren". Ordura arte egiten zituzten 48 lan orduen ordez 20 egitea erabaki zuten, eta konturatzen dira lana berdin atera dezaketela eta gainerako orduak beste gauzetarako erabil ditzaketela, esaterako, elkarren artean hitz egiteko, haurtzaindegia jartzeko edo eskolara joateko prestakuntzako gabezia batzuk osatzearen. "Neskatxa berritzaile eta fresko horiek hasi zuten prozesuaren zenbait unetan langileen tradizio loriatsu eta borrokalariari atxikitako sektoreen aurkaritzarekin topo egin zuten. Baina azkenean, batzuk eta besteek, deskubritzen dute begien bistakoa dena, lanari dioten izua. Eta uztea erabakitzen dute", ondorioztatu zuen Jordàk. Bi urte lehenago hasitako prozesuari amaiera emateko langileek festa bat antolatu zuten. Festa egunean Joaquim Jordàk galdetu zien langileei zein asmo zituzten, zer egin behar zuten aurrerantz.

Eman zituzten erantzunen arabera garbi zegoen inork ez zuela kate-lanera itzuli nahi.

Hitzaldia amaitzean Joaquim Jordàk 1979an zuzendu zuen *Numax presenta* filma proiektatu zen. Orain, Joaquim Jordà filmaren bigarren zatia bukatzen ari da eta bertan ikusi ahal izango da nola bizi diren filmeko protagonistak 25 urte beranduago eta zertan gelditu diren 1979n zituzten planak.